

**ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK
PUBLIZITATE BAKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO ESLEIPENA**

Espediente zenbakia: KON_NE_G0003

LABURPEN TAULA**ADJUDIKATZAILEA**

Erakundea: Bermeoko Udala.

IFZ: P4802100J

NUTS kodea: ES213.

Telefono zenbakia: 94 617 91 00.

Faxa: 94 688 23 12

Helbidea: Irakaskintza 14-16, 48370 Bermeo (Bizkaia).

Helbide elektronikoa: antolakuntza@bermeo.eus.Egoitza Elektronikoa: <http://bermeo.eus>

Espedientearen sail arduraduna: Idazkaritza Saila.

Sail arduradunaren helbide elektronikoa:
idazkaritzatek@bermeo.eus.**1. KONTRATUAREN XEDEA**

1.1 Xedea: Bermeoko Udalaren, bere mendeko Erakunde Autonomoen eta BERUALAren aholkularitza juridikoa eta edozein auzitan defentsa burutzea, hutsik geratu diran loteetan.

1.2 Ase gura diran beharrizanak: Bermeoko Udalak eta bere mendeko erakundeek eduki ditzaketen zalantza juridiko bereziak argitzeko aholkularitza juridikoa jasotzea eta Bermeoko Udala edo bere mendeko erakundeak parte diran auzietan defentsa juridikoa jasotzea, hutsik geratutako loteetan.

1.3 Loteak:

2. Lotea: Aholkularitza juridikoa eta auzietako defentsa Zuzenbide Zibil arloan
3. Lotea: Aholkularitza juridikoa eta auzietako defentsa Zigor Zuzenbide arloan.
4. Lotea: Aholkularitza juridikoa eta auzietako defentsa Merkatal Zuzenbide arloan.
5. Lotea: Aholkularitza juridikoa eta auzietako defentsa Lan Zuzenbide arloan.

Halan da be, kasu zehatzetan aholkularitza puntualak edota auzi berezi eta konkretuetako defentsa gai konkretu horretan aditua den beste enpresa bati esleitzeko eskubidea gordetzen du Udalak. Baina eskubide honen erabilerak, ezingo du suposatu egindako esleipena edukirik gabe uztea.

Horregatik, eskubide hau erabiltzeko arrazoiak ondo justifikatu beharko dira espedientearen.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko aholkularitza eta defentsa juridikoaren zerbitzua erabiltzeko eskubidea gordetzen du Udalak.

Bestalde, kontratu honen esleipena egin aurretik zabalik dauden auzien kasuan, auzia amaitu arte aurreko esleipendunarekin jarraitzeko eskubidea edukiko du udalak. Eskubide horretaz ez baliatzea erabakiko balitz, ordainsariak Plegu teknikoetan zehaztutako arauen arabera



banatuko dira.

1.4 CPV: 79110000-8, 79140000-7.

2. ORGANO ESKUDUNA

Tokiko Gobernu Batzarra

SPKLren 61. artikulua eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, Kontratazio-organoa Bermeoko Udaleko Alkatea da, eta udalaren izenean jardungo du. Baina 2019ko ekainaren 21eko 1.479 zenbakidun Alkateza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren arduraduna: Idazkaritza Saileko teknikaria.

4. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Urtebete, urtez urte luzatu daitekeena, gehieneko lau urtera arte. Epe berdina aplikatuko zaie lote guztiei.

5. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

5.1 Kontratuaren lizitazio prezioa:

Auzietako defentsa juridikoaren lizitazio prezio estimatua: 9.605 €, BEZa kanpo.

2. Lotea (Zuzenbide Zibil arloa): 2.525 €
3. Lotea (Zigor Zuzenbide arloa): 2.420€
4. Lotea (Merkatal Zuzenbide arloa): 1.460 €
5. Lotea (Lan Zuzenbide arloan): 3.200 €

Aholkularitza juridikoa: 4.000 €, BEZa kanpo.

2. Lotea (Zuzenbide Zibil arloa): 1.200 €
3. Lotea (Zigor Zuzenbide arloa): 800 €
4. Lotea (Merkatal Zuzenbide arloa): 400 €
5. Lotea (Lan Zuzenbide arloan): 1.600 €

Danatara (BEZa kanpo): 13.605 €.



2. Lotea (Zuzenbide Zibil arloa): 3.725 €
3. Lotea (Zigor Zuzenbide arloa): 3.220 €
4. Lotea (Merkatal Zuzenbide arloa): 1.860 €
5. Lotea (Lan Zuzenbide arloan): 4.800 €

5.2 Aurreikusitako aldaketen kopurua (BEZa kanpo):

2. Lotea (Zuzenbide Zibil arloa): 745 €
3. Lotea (Zigor Zuzenbide arloa): 644 €
4. Lotea (Merkatal Zuzenbide arloa): 372 €
5. Lotea (Lan Zuzenbide arloan): 960 €

5.3 Luzapenen prezio estimatua:

Auzietako defentsa juridikoaren lizitazio prezio estimatua: 34.578 €, BEZa kanpo.

2. Lotea (Zuzenbide Zibil arloa): 9.090 €
3. Lotea (Zigor Zuzenbide arloa): 8.712 €
4. Lotea (Merkatal Zuzenbide arloa): 5.256 €
5. Lotea (Lan Zuzenbide arloan): 11.520 €

Aholkularitza juridikoa: 14.400 €, BEZa kanpo.

2. Lotea (Zuzenbide Zibil arloa): 4.320 €
3. Lotea (Zigor Zuzenbide arloa): 2.880 €
4. Lotea (Merkatal Zuzenbide arloa): 1.440 €
5. Lotea (Lan Zuzenbide arloan): 5.760 €

Danatarra (BEZa kanpo): 48.978 €.

1. Lotea (Zuzenbide Zibil arloa): 13.410 €
2. Lotea (Zigor Zuzenbide arloa): 11.592 €
3. Lotea (Merkatal Zuzenbide arloa): 6.696 €
4. Lotea (Lan Zuzenbide arloan): 17.280 €

Balio estimatua danatarra (lote guztiak, luzapenak eta kontratua aldatzeko aurreikusitako aukera guztiak barne): 65.304 euro, BEZa kanpo.

6. KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua, BEZa barne: 16.462,05 euro.

- Kostu zuzenak: 6.651,50 euro
- Zeharkako kostuak: 3.325. euro
- Langileria kostuak: 6.485,55 euro.

7. FINANTZIAZIOA

Aplikagarria den partida hau izango da: 00100.92011.2260400

8. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez.

9. BERMEAK

a. Behin-behineko bermea:

Ez.

b. Behin betiko bermea:

Bai: Esleipen prezioaren % 5.

10. AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratuaren exekuzioa azpikontratatu eta laga daiteke, Administrazio baldintza zehatzen orri hauetako 15. atalaren arabera.

11. KONTRATUA ALDATZEA:

Sortutako Auzien ondorioz, gastuak kontratuaren balio estimatua gaindituko balu, kontratua handitu ahal izango da.

Aldaketa hauek ezingo dute hasierako prezioaren %20a gainditu ezta hasierako kontratuaren izaera globala aldatu.

12. BERME EPEA

Ez da aurreikusten.

13. ESLEIPENA EGITEKO BIDE ETA MODUA

13.1 Prozedura: Arrunta.

13.2 Esleipen irizpideak:

1.Prezioa: % 31

2.Aurkeztutako lan proiektuaren ezaugarriak eta planteamendu orokorra: % 30



- 3. Zerbitzuaren kalitatea: % 20
- 4. Emongo diran zerbitzu bereziak: % 8
- 5. Auziak murrizteko proiektua aurkeztea: % 5
- 6. Euskera maila: % 4
- 7. Hobekuntzak: % 2

13.3 Formulak:

Prezioa (31 puntu):

Prezioaren barruan, 18 puntu emango zaizkio **aholkularitza juridikoaren** ordu prezioari eta beste 13 puntu **Defentsa juridikoan**, proposatutako beherapen protzentualari.

Aholkularitza juridikoaren ordu prezioari dagokionez (18 puntu gehienez):

Eskaintza bakoitzaren puntuaketa lortzen da, ordu prezio baxuena eta baloratzen den eskaintzaren ordu prezioaren arteko zatiketarik sortzen den koefizientearekin, irizpidean eman daitezkeen puntuekin biderkatuz, baina kontutan edukita, zerbitzuaren kalitate egokia bermatzeko, ordu-prezioa gutxienez 40 eurokoa izango dela. Hau da, ordu-prezioa 40 euro edo gutxiagokoa eskaintzen dutenek, gehienezko 18ak lortuko dituzte eta, horrelako beherapenik balego, beste eskaintzak puntuatzeko hartuko den ordu prezio baxuena 40 eurokoa izango da, modu honetan:

[Ob/Ol] x 18

Ob: ordu-prezio baxuena (gutxienez 40)

Ol: baloratzen den eskaintzaren ordu-prezioa.

18: Eman daitezkeen gehienezko puntuak.

Defentsa juridikoaren beherapen portzentualari dagokionez:

Eskaintza bakoitzaren puntuaketa lortzen da, Legelarien Euskal Kontseiluak zehaztutako ordainsarien arauetan zehaztutako kopuruei egiten zaien beherapen protzentual altuena eta baloratzen den eskaintzaren beherapenaren arteko zatiketarik sortzen den koefizientearekin, irizpidean eman daitezkean puntuakaz biderkatuz. Baina aurreko atalean esan den moduan, zerbitzuaren kalitate egokia bermatzeko, beherapen portzentuala, gehienez, %50ekoa izango da. Hau da, %50eko beherapen portzentuala edo gehiagokoa eskaintzen dutenek, gehienezko 13ak lortuko dituzte eta, horrelako beherapen portzentajerik balego, beste eskaintzak puntuatzeko hartuko den portzentajea %50a izango da, modu honetan:

[Bl/Bb] x 13

Bl: baloratzen den eskaintzaren beherapen portzentuala

Bb: beherapen altuena (gehienez %50)

13: Eman daitezkeen gehienezko puntuak.

Eskaintza ekonomikoa aurkezteko modua eta irizpideak, baldintza teknikoan agirian zehazten dira.

Aurkeztutako lan proiektuaren ezaugarriak eta planteamendu orokorra (30 puntu):

1.- *Prestasuna, bai teknologikoa eta baita presentziala ere* (5 puntu): Prestasun osoa, egutegi eta ordutegia edozein dela ere, proposamen ekonomikoa aurkeztutako ordu/prezio berdinean: 5 puntu.

2.- *Edozein batzarretan parte hartu eta laguntzea batzarra edonon eta edonoiz dela ere, baldintza*



teknikoetan zehaztutakoa gutxiengoa gaindituta, proposamen ekonomikoan aurkeztutako ordu/prezio berdinean (5 puntu).

3.- Kontsulta errazak momentuan erantzutea eta konplexuak, gehienez, 5 eguneko epean, kontsultaren eguna eta ordua edozein dela ere, ezelako kosturik gabe errazak direnean eta proposamen ekonomikoan aurkeztutako ordu/prezio berdinean konplexuak direnean: (5 puntu).

4.- *Abuztuan presentzia telematikoa bermatzea:* (5 puntu gehienez):

a) Proposamen ekonomikoan aurkeztutako ordu/prezio berdinean: 5 puntu.

b) Proposamen ekonomikoan adierazitako ordu/prezioan barik, ordu/prezio garestiagoan: puntu 2,5 gehienez: puntu 2,5 proposamen ekonomikoan adierazitako ordu/prezioa baino %25 garestiagoa bada eta 1 puntu proposamen ekonomikoan adierazitako ordu/prezioa baino %50 garestiagoa bada. Hori baino garestiagoa balitz, ez da punturik emango.

b) atala puntuatzeko proposatzen den ordu/prezioa zehaztu beharko da.

5.- *Agiri ezberdinak erredaktatzea dohain:* (5 puntu gehienez). Udalak eskatzen dizkion agiri ezberdinak dohain erredaktatzeko konpromisoa hartzea. 0,025 puntu orri bakoitzeko (zenbat orri erredaktatzeko konpromisoa hartzen den zehaztu beharko da).

Orrialdeak Bermeoko Udalak onartuta dauzkan estandarren arabera idatzitakoak izango dira, hau da, Univers LT Std 57 Cn letra tipoa, 12 tamainadun letran eta lerro artekoa 1,15.

6.- *Hurbiltasuna (5 puntu):* Urgentziarako kasuetan udaletxera lehenbailehen etorri ahal izatea baloratzen da eta, horretarako, hurbiltasuna garrantzitsua da. Horregatik, Bermeotik gehienez 5 kilometroko distantzia barruan bulegoa izatea edo bulegoa izateko konpromisoa agertzea 5 punturekin baloratuko da.

Zerbitzuaren kalitatea (20 puntu):

Atal honetan, azken 10 urteetan irabazitako epai irmoetan egindako lanaren kalitatea baloratuko da eta, horretarako, gaien berezitasuna edo espezializazio maila, konplexutasun tekniko edo eztabaidatutako gaien konplexutasuna, interes orokorren garrantzia, eztabaidatutako gaiaren zenbatekoa edo oinarri ekonomikoa. Lote bakoitzean, jurisdikzio zehatz horretan irabazitako epaiak bakarrik baloratuko dira eta, Administrazioa, demandatzaile edo demandaturia legez agertu beharko da derrigor. Gehienez, 30 epai baloratuko dira arloko, eta 30 epai baino gehiago aurkeztuko balira, dataren arabera berrienak direnak baloratuko dira.

Irizpide hau puntuatzeko oinarriak hauek izango dira:

Konplexutasun tekniko edo gaien konplexutasuna (Gehienez 7,5 puntu)	Administrazioa toki entitate da eta konplexutasun maila altua da. (1 puntu epai bakoitzeko)	Administrazioa ez da toki entitatea eta konplexutasun maila altua da. (0,8 puntu epai bakoitzeko)	Administrazioa toki entitatea da eta konplexutasun maila ertaina da. (0,6 puntu epai bakoitzeko)	Administrazioa ez da toki entitatea eta konplexutasun maila ertaina da. (0,4 puntu epai bakoitzeko)	Administrazioa toki entitatea da eta konplexutasun maila baxua da. (0,2 puntu epai bakoitzeko)	Administrazioa ez da toki entitatea eta konplexutasun maila baxua da. (0,1 puntu epai bakoitzeko)
Berezitasun edo espezializazio	Administrazioa toki entitatea da	Administrazioa ez da toki entitatea eta	Administrazioa toki entitatea da	Administrazioa ez da toki entitatea eta	Administrazioa toki entitatea da	Administrazioa ez da toki entitatea eta



maila. (Gehienez 7,5 puntu)	eta berezitasun edo espezializaio maila altua da. (1 puntu epai bakoitzeko)	berezitasun edo espezializaio maila altua da. (0,8 puntu epai bakoitzeko)	eta berezitasun edo espezializaio maila ertaina da. (0,6 puntu epai bakoitzeko)	berezitasun edo espezializaio maila ertaina da. (0,4 puntu epai bakoitzeko)	eta berezitasun edo espezializaio maila baxua da. (0,2 puntu epai bakoitzeko)	berezitasun edo espezializaio maila baxua da. (0,1 puntu epai bakoitzeko)
Interes Orokorraren garrantzia (Gehienez 5 puntu)	Administrazioa toki entitatea da eta interes orokorrekoa da. (Puntu 1 epai bakoitzeko)	Administrazioa ez da toki entitatea eta interes orokorrekoa da. (0,5 puntu epai bakoitzeko)	Administrazioa toki entitatea da eta ez da interes orokorrekoa (0,2 puntu epai bakoitzeko)	Administrazioa ez da toki entitatea eta ez da interes orokorrekoa (0,1 puntu epai bakoitzeko)		

Konplexutasun tekniko edo gaien konplexutasunari dagokionez, maila baxukoa dela ulertuko da legearen edo legeen interpretazioa bakarra dagoenean edota jurisprudentzia eta doktrina ugariaren ondorioz, interpretazio edo emaitza zein den zalantzarik gabe jakin daitekeenean.

Mila erdikoa dela ulertuko da legearen edo legeen interpretazioa zabala denean eta jurisprudentzia eta doktrinak irakurketa ezberdinak egiten dituztenean, edota urria izateagatik, emaitza zein izan behar duen ezin denean zehatz jakin.

Maila altukoa dela ulertuko da legearen edo legeen interpretaziorik ez dagoenean jurisprudenzian ez doktrinan, edota doktrina oso urria izateagatik, emaitza zein izan daitekeen guztiz ezezaguna denean.

Berezitasun edo espezializazio mailari dagokionez, maila baxukoa dela ulertuko da arlo horretako legedi arrunta aplikatzen diren kasuak.

Maila ertaina dela ulertuko da, legedi berezi edo sektoriala aplikatzen diren kasuak, legedi edo sektore horretan jakintza berezia izatea dakarrena.

Maila altukoa dela ulertuko da, arlo horretako lege oso bereziak, gutxitan erabiltzen direnak aplikatzen diren kasuak, legedi edo sektore berezi bateko jakintza oso espezializatua izatea dakarrena.

Interes orokorrari dagokionez, ulertuko da ez dela interes orokorrekoa, jokoan dagoen interesa partikularra edo norbanakoari eragiten diona bada, edota epaiaren ondorioz hirugarren multzo batenganako eraginik ez badago.

Interes orokorrekoa dela ulertuko da, jokoan dagoen interesa orokorra edo hirugarren multzo bateri eragiten diona bada, akzio publikoa dagoen gaia bada, edota epaiaren ondorioz hirugarren multzo batenganako eragina badago.

Emango diran zerbitzu bereziak (8 puntu):

1- Plangintza: Segurtasun juridikoa eta antolakuntzaren aldetik hobetzeko teknikak, neurriak, dinamikak eta prozedurak martxan ipinteko, ezelako kosturik gabe, plangintza bat egitea 4 punturekin baloratuko da.



2.- Legediaren gaineko ikastaroak edo legediaren laburpen-ondorioak ematea: Udalak eskatutako legediaren gaineko ikastaro bat edo gehiago edota legediaren laburpen-ondorioak ematea, 20 ordura arteko gehienezko iraupen edo lan zamarekin denetara, ezelako kosturik gabe, 4 punturekin baloratuko da.

Auziak murrizteko proiektua aurkeztea: (5 puntu):

Lizitzailearen ustez auzi edo erreklamazioak gutxitzea lortzeko edota auziak errazago irabazteko proiektu bat aurkeztea, proposamenagaz bat, 5 punturekin baloratuko da gehienez. Irizpide hau puntuatzeko oinarriak hauek izango dira:

-Udalean era automatikoan ezarri daitekeen proposatutako neurri bakoitzarengatik 0,5 puntu emango dira

-Era ez automatikoak izarri daitekeen proposatutako neurri bakoitzarengatik, 0,25 puntu emango dira.

Neurriak era automatikoan ezarri daitekeela ulertuko da udalean zuzenean, bere langile eta baliabidekin, eta hirugarrenen parte hartze edo baimenik gabe ezarri daitezkeenean. Kontrara, ez automatikoan ezartzeko modukoak direla ulertuko da kanpoko baliabide, parte hartze edo baimena beharrezkoa denean ezarri ahal izateko.

Proposatutako neurriak berriak izan beharko diran Udalarentzat, hau da, Udalean ezarri edo erabili gabekoak izan beharko dira eta, bakoitza, auzi edo erreklamazioak gutxitzeko baliagarria dela frogatu beharko da, bai aurretik administrazioan izandako esperientzien bidez, bai doktrina edo jurisprudentziak jasotako arrazanamenduen bidez.

Euskera maila: (4 puntu):

Zerbitzua emango duten langileren batek daukan euskera maila puntuatuko da atal honetan. Espedienteen gehiengoa eta dokumentazio nagusia Administrazio zuzenbide arloari dagokionez, lote horretan langileren batek 4. Hizkuntza eskakizuna edo baliokidea izateak 4 punturekin baloratuko da.

Beste arlo guztietako loteetan, langileren batek 3. Hizkuntza eskakizuna edo baliokidea izateak 4 punturekin baloratuko da.

Puntuak emateko hizkuntza eskakizunaren agiria aurkeztu beharko da.

Hobekuntzak (2 puntu):

Lote bakoitzean, zerbitzu hobea emateko udalarentzat interesgarria izan daitezkeen beste arloetako aholkularitza edo laguntza, bestelako teknikari kolaboratzaileen eskutik eskaintzea baloratuko da.

Hain zuzen ere, Zigor arloaren lotea, psikologoaren, medikuen edo kriminalisten laguntza baloratuko da.

Lan arloaren lotean, Giza baliabideen teknikarien edo psikologoaren laguntza baloratuko da.

Merkataritza arloaren lotean, finantza eta zerga arloetako adituen laguntza baloratuko da.

Administrazio zuzenbidearen arloko lotean, arkitekto edota administrazio kontabilitatean adituen laguntza baloratuko da.

Zuzenbide zibilaren arloko lotean, arkitekto edota erantzukizun zibileko gaietan edo aseguru gaietan



adituen laguntza baloratuko da.

Irizpide hau baloratzeko, adituen partaidetza konpromiso gutunaren bidez egiaztatu beharko da. Udalak aditu hauen laguntza behar izatekotan, teknikari hauen laguntza eskeini beharko du esleipendunak eta laguntzaile hauek kobratuko dutena esleipendunak eskaintako ordu/prezioara mugatuta egongo da. Honela, gehienez, esleipendunak eskeinitakoa kobratzeko eskubidea izango dute orduko.

Laguntza taldea eskeintzeagatik puntu 2 emango dira.

Lehentasuna ezartzen da:

Bai, Administrazio baldintza zehatzen orri hautetako 22. atalaren arabera.

14. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

14.1 Kontratatze gaitasuna eta kaudimena egiaztatze moduak:

Kaudimena egiaztatze eta ebaluatze bideak SPKLren 87.2, 90.1.a), 90.1.b) eta 90.1.h) artikuluetan ezarritakoak izango dira, VI eta VII eranskinen bidez egingo dena.

14.2 Kontratuaren prestazioa burutzeko kaudimen berezia:

-Aurkeztutako lote bakoitzerako proposatutako abokatu edo abokatuek, jarduneko abokatu moduan gutxienezko 10 urteko esperientzia kreditatu beharko dute orokorrean eta, lote zehatz bakoitzeko zuzenbide arloan, 5 urteko esperientzia.

-Gainera, aurkeztutako lote bakoitzeko zuzenbide arloan, azken 5 urteetan auzi bi irabazi izana kreditatu beharko da epai irmo bidez, zeinetan proposatutako abokatuak parte hartu duela agertuko den.

-Lan zuzenbide arloko lotean, giza baliabideen kudeaketan masterra eduki beharko du.

14.3 Sailkapena:

Ez da eskatzen.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

LEKUA: Kontratugilearen profilean, lotura honen bidez: <http://bermeo.eus/1470.html>

EPEA Egutegiko 15 egun, gonbitea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Prozeduran parte hartzeko eskaria, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengoko bost egunetan egin beharko da.

Artxiboei, honako izen orokorra jarriko zaie, artxibo bakoitzak edukiko duen azpitoluaren kalterik gabe: "AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN ZERBITZU KONTRATUA".



16. KONTRATUA ANORMALKI BAXUTZAT HARTZEKO IRIZPIDEAK

Esleipen irizpide ezberdinak egonda ere, prezioaz kanpoko irizpideak jasangarriak diren heinera arte daudenez puntuatuta eta, hortik gorako eskaintzarik puntuatuko ez denez, prezioa bakarrik hartuko da kontutan proposamenak anormalki baxutzat hartzeko, ondoren irizpideen arabera:

1. Lizitatzaille bakarraren kasuan, proposamenaren beherapena oinarrizko aurrekontuaren % 25a baino handiagoa denean.
2. Bi lizitatzaille aurkezten diren kasuan, proposamen baxuena, beste proposamenarekiko, %20a baino gehiagoko beherapena suposatzen duenean.
3. Hiru lizitatzaille aurkezten diren kasuan, aurkeztutako proposamenen batz besteko aritmetikoa egin ondoren, batz besteko horrekiko % 10a baino gehiagoko beherapena suposatzen dutenek. Batz besteko aritmetikoa egiteko, proposamen altuena ez da kontutan izango batz besteko horrekiko %10a baino gehiagoko gorakada badu. Eta edozein kasutan anormalki baxutzat hartuko dira oinarrizko aurrekontuaren % 25a baino handiagoko beherapena egiten duten proposamenak.
4. Lau edo gehiago lizitatzaille aurkezten diren kasuan, aurkeztutako proposamenen batz besteko aritmetikoa egin ondoren, batz besteko horrekiko % 10a baino gehiagoko beherapena suposatzen dutenek. Batz besteko aritmetikoa egiteko, ez dira kontutan edukiko batz besteko horrekiko %10a baino gehiagoko gorakada duten proposamenak. Baina azken kasu honetan, batz besteko aritmetikoa egiteko geratzen diren proposamenen kopurua hirutik beherakoa bada, batz besteko berria hiru proposamen baxuenekin kalkulatu da.

17. ERREKURTSOAK:

Baldintza agirien eta kontratazio espedientean onartutako erabakien aurka, Berraztertze errekurtsua aurkeztu daiteke, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra arautzen duen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera.

Era berean, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Administrazioarekiko Auzibidea arautzen duen 29/1998 Legearekin bat.

**Sinadurea eta data**

ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK
PUBLIZITATE BAKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO ESLEIPENA

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea laburpen taularen **1.1 atalean** aurreikusitakoa izango da eta, kontratu honen bidez, **1.2 atalean** zehaztutako administrazio beharrian hauek ase gura dira.

Kontratua, **1.3 atalean** jasotako loteetan banatuko da.

Kontratuaren xedea ikusita, hornidura administrazio-kontratua da, guzti hori Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 16. eta 25. artikulua kontuan hartuta.

Kontratu hau burutzeko beharrezko aholkularitza juridiko bereziaren eta auzietako defentsa juridikoaren zerbitzua garatzeko udalaren berezko baliabide pertsonal eta teknikoaren faltan oinarritzen da. Gainera, hutsik geratutako loteetarako, aurretik dugun aholkularitza juridiko eta edozein auzietako defentsaren kontratua iraungita dago.

CPV: **1.4 atalean** zehaztutakoak.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2. ORGANO ESKUDUNA

SPKLren 61. artikulua eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, kontratazio organoa laburpen taularen **2. atalean** zehaztutakoa da.

Organoak administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du eta, hortaz, kontratua interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak konpontzeko, herri-intereseko arazoak direla-eta aldatzeko, suntsiarazpena erabakitzeko eta suntsiarazpenaren ondoreak zein diren zehazteko ahalmenak ditu, ezargarri diren arauak ezartzen dutenari lotuta. Horren inguruan ematen dituen erabakiak betearazleak dira; nolahi ere, kontratatzaileak auzibide eskudunera jo dezake aurka egiteko.

3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratu honen arduraduna laburpen taularen **3. atalean** zehatzen dira.

4. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA



Zerbitzua egiteko epea laburpen taularen **4. atalean** jasotakoa izango da.

Zerbitzua ez bada epe horretan egiten, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

Hala ere, kontratu hau iraungitzean, ez bada berria esleitu eta interes orokorreko arrazoiak badaude, esleipenduna derrigortuta egongo da kontratatutako baldintza berdinetan kontratuarekin jarraitzen, kontratu berria esleitu arte, beti ere gehienezko 9 hilabeteko epean, eta lizitazio iragarkia kontratua iraungi baino 3 hilabete arinago argitaratu bada; esleipen berria ahalik eta arinen gauzatu beharko da.

5. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Kontratu honen balio estimatua, kontratuaren xede diren loteak kontutan edukita, laburpen taularen **5. atalean** jasotako moduan banatzen da.

Eta balio hori hartu da kontuan lizitazio prozedura eta egin beharreko publizitatea aukeratzeko.

6. KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

Kontratu honen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua laburpen taularen **6. atalean** jasotakoa da, BEZa barne. Eta hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua, kontratu honi lotuta.

7. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa adostutakoarekin bat eta benetan exekutututako prestazioaren arabera ordainduko zaio kontratistari.

Prezioak BEZa barne hartzen duela ulertuko da, aparteko partida lege zehaztuko bada ere.

8. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da 2019 urteko aurrekontuaren kontura eta, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak. Kontratuaren indarraldia kreditu horiek izatearen mende geldituko da.

Aplikagarria den partida laburpen taularen **7. atalean** zehaztutakoa da.



Sinadurea eta data



9. NOLA ORDAINDU

Ordainketak hilerokoak izango dira. Kontratatik bere faktura auzetuko du hilabeteko zerbitzuagatik eta transferentzia bidez ordainduko zaio, faktura onartzeko prozedura bete ondoren.

Fakturarekin batera, egindako zerbitzuen eta izandako istiluen lan-partea aurkeztu beharko da.

Gainera, ez badira erantzen zerbitzu- kontratu honetan diharduten langileen TC1 eta TC2 kotizazio boletinen kopiak eta guztien soldatak ordaindu izanaren egiaztapenak edo baliokideak ez dira izapidetuko hileko fakturak.

10. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Espainiako ekonomia desindexatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea eta berau garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, bai SPKLren 103. artikuluan ezarri denarekin bat etorritik, kontratu honi ez dagokio berrikuspina egitea.

11. BERMEAK

Behin-behineko bermea:

Kontratuaren ezaugarriak kontutan edukita, ez da beharrezkoa ikusten behin-behineko bermea ezartzea parte hartzaileek proposamena mantentzen dutela bermatzeko, SPKLren 106.1 artikuluekin bat.

Behin betiko bermea:

SPKLko 107.1. artikuluan arautu denari jarraituta, ikuspegi ekonomikotik eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatuak egiaztatu behar du esleipenaren zenbatekoaren %5eko bermea eratu duela –BEZ eta luzapenak kenduta–, eta, horretarako, errekerimendua jaso duen unetik hasita, hamar egun baliodun izango ditu.

Errekerimendua epe barruan behar bezala bete ezean, lizitatuak eskaintza atzera botatzen duela ulertuko da.

Bermea eratu daiteke SPKLko 108. artikuluan adierazten diren moduetatik edozeinetan, eskudirutan, abal baten bidez, balore publiko zein pribatuekin, kuzio-aseguruaren bidez, edo prezioaren zati bat atxikita, HAKLEOko 55. artikuluan eta hurrengoetan jaso diren modu eta baldintzetan.

Bermea abal edo kuzio-aseguru baten bidez eratuz gero, sinadurak legezatu egin behar dira. Fede-emaile publiko batek egiaztatuko eta askietsiko ditu sinatzaileen ahalordeak, eta atzealdean jarriko du horren gaineko eginbidea.



Sinadurea eta data



SPKLko 108.2. artikularekin bat etorri, lizitatuak behin betiko bermea kontratuaren prezioaren zati bat atxikita eratzeko eska dezake: kontratistari ordaindu beharreko lehenengo fakturatik edo hurrengoetatik kopurua kenduko da, zenbateko osora heldu arte. Hartara, lizitatuak idatziz adieraziko dio hori kontratazio-organoari aipatutako zazpi egun balioduneko epean.

Egin beharreko zerbitzuak nolakoak diren jakinda, ez dago berme-aldirik. Hala ere, ez da behin betiko bermea itzuliko, harik eta kontratuaren indarraldia bukatu eta kontratuaren harrera formala egin arte. Horren arabera, bermea itzul daiteke osorik edo zati batez, SPKLren 111. artikulua xedatzen duenarekin bat.

12. KONTRATUA BETETZEA

Baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoaren agirian ezarritako moduan burutu beharko da kontratua.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo honen agindupeko egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartu daitezela agindu ahal izango du.

* Esleipendunak Bermeoko Udaleko zerbitzuei atxikitako langile guztien soldatak ordaindu beharko ditu legeak ezarritako epeetan.

Hori horrela, Udalak edozein momentutan eska dakioke esleipendunari langileek sinatutako egiaztagiria aurkeztea, non adierazten duten soldatak epe barruan jaso dituztela. Esleipendunak ez badu erantzuten, ulertuko da soldatak ez dirala ordaindu epe barruan.

Esleipendunak ez baditu epe barruan soldatak ordaintzen, Udalak hurrengo zigorrak jar ditzake:

Soldata ordaintzeko berandutza aste bete baino gehiagokoa bada: epe barruan ordaindu ez zaion langilearen aurreko hilabeteko soldata gordinaren %5a.

Soldata ordaintzeko berandutza aste bi baino gehiagokoa bada: epe barruan ordaindu ez zaion langilearen aurreko hilabeteko soldata gordinaren %10a.

Soldata ordaintzeko berandutza hilabete baino gehiagokoa bada: ulertuko da ez dala bete funtsezko kontratu-betebeharra; eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da 211.1. f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Urte bateko epean, baten baino gehiagotan, soldata ordaintzeko berandutza aste bi baino gehiagokoa bada: ulertuko da ez dala bete funtsezko kontratu-betebeharra; eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da 211.1. f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

13. ESLEIPENDUNAREN BETEKIZUNAK SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOAN



Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienezko arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu.

Bermeoko udalak, urtarrilaren 30eko, 171/2004 Errege Dekretuak garatzen duen, azaroaren 8ko, Laneko Arriskuen Prebentziorako Legeko 24. artikulua, enpresa jardueren koordinazioaren arloko betekizunak bete behar ditu.

“enpresaburu nagusiak beraren jarduerari dagokion eta beraren beharlekuan egiten diren obretako edota zerbitzuetako enpresa kontratistek eta azpi-kontratistek prebentzio arautegia betetzen dutela zaintzeko betebeharra dauka”.

“enpresaburu nagusiak bere lantokian batzen diren enpresa kontratista edo azpi-kontratistek euren artean beharrezko diren koordinazio bitartekoak ezarri dituztela konprobatu beharko du”

Aurreko araudia kontuan hartuta, laneko arriskuen prebentzio arloan koordinazio eta kooperazio lanak betetzeko helburuarekin, kontratuaren objektuan zehazten den jarduera hasi baino lehen esleipendunak **I. eranskinean** zehazten diren agiriak kreditatu beharko ditu.

Jasotako agiriak, saileko arduradunak, Bermeoko Udaleko laneko prebentzio zerbitzura bidaliko ditu, aurkeztutako agiriak konprobatzeko.

Behin dokumentazio guztia ondo dagoenean, laneko prebentzio teknikariak **Koordinazio fitxa** bete eta sinatuko du eta esleipendunari bidaliko dio, beharrezko diren bestelako informazio fitxekin, honek sinatuta entregatu dezan.

Esleipendunak **Koordinazio fitxa** sinatuta bidaltzen duenean koordinazioa burututa geratuko da. Koordinazioa burututa dagoenean saileko arduradunari komunikatuko zaio esleitu den zerbitzua hasteko.

Ez da lanik hasiko koordinazio fitxa alde biak sinatu arte.

Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Modu berean, sektoreko gertueneko hitzarmen kolektiboa osorik aplikatu beharko die kontratu honekin zerikusia duten langileei.

Kontratu honen xedea gauzatzeko esleipendunak eskaintzen duen langileria guztia esleipendunaren plantillan egon behar da eta ez du udalarekin inolako lan-loturarik izango.

Kontratua osotasunean betetzeko kontratista izango da zerbitzua behar bezala antolatzeko erantzulea. Gainera, bere langileen gizarte eta lan eskubideak bermatzen direnaren erantzule izango da. Horietan, udalak ez du inolako zereginik izango.

Esleipendunak, ahal duen neurrian, zerbitzu hau prestatzeko langileen estabilitatea mantendu beharko du. Langileren bat ordezteko beharrezkoa bada, bermatu behar du ordezkoko pleguetan eta kontratuaren zehaztutako baldintzak betetzen dituela. Udalari aldaketa horien berri eman beharko dio.



Esleipendunak betebeharrak horiek zehatz betetzen direla bermatu beharko du uneoro, baita kontratuaren zatiren bat azpikontratatu bala ere, eta udalak, betebeharrak horiek betetzen direla bermatzeko, egokiak diren ikuskapenak egin eta egoki deritzon agiriak aurkezteko errekerimendua egiteko ahalmena izango du.

Berton ezarritako betebeharrak funtsezkoak dira eta ez betetzeak kontratua suntsiarazteko arrazoia suposa dezake. Hala ere, ulertzen denean ekintza isolatua dela, berreraman daitekeela eta suntsiaraztearekin interes orokorraren kontra joan daitekeela, suntsiaraztea alde batera utzi eta hurrengoko hertsapen-zigorra ezarriko da: esleitutako prezioaren (BEZa barne) %1 eta %5aren artekoa arau-hauste bakoitzeko. Portzentajea zehazteko orduan kontuan hartuko dira: larritasuna, berrerortzea eta fede txarra egon bada.

Zigor horietatik independientea da kontratua gauzatzeko egin beharrekoen ondorioz hirugarren batzuei eragindako kalte eta galera guztien kalte-ordainen gainean kontratistak duen betebeharra.

Zigor eta kalte-ordainok ezartzeko espediente zehatzaile laburtua burutuko da.

Ezartzen diren zigor edo kalte-ordainak berehala betearaziko dira eta zenbatekoak kendu ahalko dira Udalak esleipendunari ordaintzeko dauzkan fakturretatik, behin betiko bermetik edota zuzenbide publikoko sarrerak jasotzeko legeak emandako edozein bidetik.

Edozelan ere, kontratistak administrazio-baldintza zehatzen orri honetan, baldintza teknikoaren orrietan edota kontratuetan ezartzen diren bestelako obligazioak bete beharko ditu.

14. DATU PERTSOLEN BABESAREKIKO ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

Datu Pertsonalen Babeserako betekizunak eta legedia zehatz mehatz bete beharko ditu esleipendunak.

Hori horrela, arau hauek bete beharko ditu:

- Enpresa esleituak, proiektuaren gauzapenerako Bermeoko Udalak bideratutako informazio eta dokumentazio guztia konfidentzialtasun osoz erabili beharko du, beti ere, Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako 3/2018 Lege Organikoaren, apirilaren 27ko Europar Legebiltzar eta Kontseiluko (EB) 679/2016 Erregelamendua, pertsona fisikoaren babeserako, datu pertsonalen tratamenduari dagokienean, eta datu hauen zirkulazio askearen gainekoa, eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak ezarritakoak kontuan hartuz. Kontratu honen ezaugarriak direla-eta, enpresa esleipendunak Udalean lan egingo duen langilearen bitartez, Datuen Tratamenduen arduradun izaera bere gain hartzen du eta nahitaez bete behar dituen legezko betebeharrak, lanbide betebeharrak eta betebeharrak deontologikoez gain, ezinbestean bete beharko du kontratu honek arautzen dituen atzipenaren menpeko datu pertsonalekiko lanbide sekretua; eta Toki erakundearekin dauzkan harremanak amaitu ostean ere, lanbide sekretua gorde beharrak bere horretan iraungo du. Tratamenduen arduradunaren eginkizuna izango da behar diren neurri tekniko eta antolaketako neurriak



ezartzea, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatu edo galdu ez daitezen eta baimenik gabeko tratamendurik edo atzipenik egon ez daiten.

15. AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratistak gainontzekoekin egin ditzakeen azpikontratuak egiteko, SPKLko 215., 216. eta 217. artikuluetan ezarri diren betekizunak beteko dira.

Behin kontratua esleituta eta, beranduen jota, kontratuaren exekuzioa hasterakoan, esleipendunak idatziz jakinarazi behar dio administrazioari azpikontratuak azpikontratatu duen prestazioaren zatia zein den, eta baita azpikontratataren identitatea ere; eta egiaztatuko du beraren gaitasuna aski dela betetzeko, bai erabilgarri dituen osagai teknikoei, giza osagaiei eta baita eskarmentuari ere erreparatuta. Baldin eta azpikontratistak azpikontratatu den kontratutalata egiteko sailkapen egokia badu, kontratistak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu beharrik. Azpikontratataren gaitasuna egiaztatzea azpikontratua egin eta berehala egin daiteke, baldin eta ezinbestekoa bada larrialdi-egoera bati aurre egiteko edo premiazko neurriak eskatzen baditu, eta hala zurriz bada agiri bidez.

Kontratuaren exekuzioan zehar, emandako informazioan aldaketarik suertatuko balitz edota azpikontratu berriak egingo balira, horren berri eman beharko du berehala eta, azpikontratu berrien kasuan, beti, azpikontratatu den zati berria exekutatzeko hasi orduko.

Kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua betetzeko erantzukizun osoa Bermeoko Udalarekin; azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean baino ez dira erantzule izango. Kontratistak ezin du kontratua zati baten azpi kontratatu, ordenamendu juridikoari jarraituta kontratatze gaitasunik ez duten pertsonekin, edo SPKLko 71. artikuluan jaso diren egoeraren baten dauden pertsonekin.

Esleipendunak proposamena aurkezterakoan jasotako azpikontratatzeko asmoekin bat ez datozen azpikontratuak, bai enpresa beste bat delako bai xedearen beste zati batzuen gainekoa delako, azpikontratuak ezingo dira egin udalari jakinarazpena eta justifikazioa bidali eta 20 egun igaro arte, beti be udalak ez badu alde aurretik espresuki baimendu.

Kontratistaren erantzukizunpean, ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazitako 20 eguneko epea itzarotea azpikontratua burutzea ezinbestekoa bada larrialdi-egoera bati aurre egiteko edo premiazko neurriak eskatzen baditu, eta hala zurriz bada agiri bidez.

Udalak frogatuko du esleipendunak kontratuan parte-hartzen duten azpikontratistei egin behar dizkien ordainketak bete direla. Horretarako, esleipendunak udalari bidaliko dio kontratuan parte-hartzen duten azpikontratisten zerrenda zehaztua, parte-hartzea burutzen denean, haietako bakoitzak dituen azpikontratate-baldintzekin batera, ordainketa-aldiarekin zuzeneko harremana badute. Era berean, haiek ordaindu dituzten egiaztagiria ekarri behar dituzte, behin prestazioa ematea bukatu denean legean ezarri diren epeetan; hain zuzen ere, SPKLko 216 eta 217. artikuluetan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean araututakoetan, ezargarri den neurrian.



Ordainketak SPKLko 216. artikulua zehazten dituen eran egiten ez direla egiaztatuko balitz, udalak azpikontratistei zuzenean ordaintzeko aukera izango du, SPKLko LI. Xedapen Gehigarriaren 1. atalaren arabera. Ordainketa horien eragina Xedapen Gehigarri berberaren 3. atalean zehaztutakoa izango dira, eta udalari ezingo zaio eragotzi 4. atalean adierazitako atzerapenaren erantzukizuna.

Betebeharrok kontratua betetzeko oinarriko baldintzak dira, eta, bete ezean, ordenamendu juridikoan xedatu diren ondoreak sortu ez ezik, plegu honetan eta 215.3 artikuluan aurreikusitako zigorrek ipintzeko arrazoia izango da.

Kontratu honetatik jaiotzen diren eskubideak eta betebeharrak lagatzeko, SPKLko 214. artikuluan arautu denari jarraituko zaio.

Esleipendunaren ondorengotza emateko, SPKLren 98. Artikulua hartuko da kontutan.

16. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratua burutzen den bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

17. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak kontratua aldatzeko ahalmena izango du laburpen taularen **11. atalean** jasotako kasuetan eta ezartzen diren mugekin, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 204. artikulua ezarritakoaren arabera.

Aldaketa hauek ezingo dute hasierako prezioaren %20a gainditu ezta hasierako kontratuaren izaera globala aldatu.

Kontratua arrazoi honengatik aldatzeko prozedura honakoa izango da:

1. Kontratuaren arduradunaren justifikazio txostena egin.
2. Kontu hartzailearen txostena egin.
3. Idazkari nagusiaren txostena egin.
4. Erabagi hartu eta esleipendunari jakinarazi.

Kontratazio plegu honetan edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehaztutakoan ere kontratua aldatu ahal da.



18. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren zerbitzu hartzea edo kontratuaren exekuzino egokiaren onespena, kontratua amaitu eta hilabete epean egingo da, SPKLren 210.2. artikulua bat, horretarako udalak zehaztutako egun eta orduan.

Kontratuaren xedea dela eta, ez da berme eperik aurreikusten.

19. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA**

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1000 euroko (193.3. artikulua).

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea eta behin betiko bermea atxekitzea edo hurrengoko zigorrak ezartzea (192.2. art):

- Ez-betetze oso larrien kasuan, 500 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez- betetze oso larriak direla hurrengoak:

o Hornidurak egitea zehaztutako data baino zazpi egun beranduago, salbu eta ezinbesteko kasuetan.

o Agirikoa denean hornidurak ematen direla modu akasdunean edo irregularrean.

o Ez betetze sistematikoa epeetan.

o Udalaren agindu ofizialei jaramonik ez egitea.

o Ez betetzea pleru hauetan ezarritako edozelako baldintza edo epe, aurreikusitako bestelako ondorioen kalte barik.

- Ez-betetze larrien kasuan, 300 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez- betetze larriak direla hurrengoak:

o Hornidurak egiterakoan sistematikoa ez den ez betetzea egotea.

o Hornidurak egiterakoan albaranek ez entregatzea, albaranetan formazioa faltatzea edo albaranen informazioa ez izatea benetakoa.

o Ez betetze arinak errepikatzea.

- Ez-betetze arinen kasuan, 150 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez- betetze arinak direla hurrengoak:



Aurretik zehaztu ez direnak eta zentzu batean orrietan zehaztutako baldintzak kaltetzen direnean.

Zigorrok kontratazio organoak ezarriko ditu, espediente zehatzaile laburtua izapidetu ondoren.

Ezartzen diren zigorrak edo kalte ordainak berehala betearaziko dira eta zenbatekook kendu ahalko dira Udalak esleipendunari ordaintzeko dauzkan fakturretatik; behin betiko bermetik edota zuzenbide publikoko sarrerak jasotzeko legeak emandako edozein bidetik.

C) PRESTAZIOEN EXEKUZIO AKASTUNA

Esleipendunak kontratua akatsekin exekutatu balu, ez betetzearen larritasunarekin bat datozen zigorrak ipiniko dira eta, bakoitzak, ezingo du kontratuaren prezioaren % 10 gainditu, ezta, zigor guztiak batera, % 50. (192.1. art.)

20. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 211. eta 306. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Horretaz gain, kontratua apurtzeko arrazoia izango da plegu honetako 13. eta 14. ataletan xedatutako guztia ez betetzea eta modu berean, 23. atalean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor- edo administrazio-arloko zigorra izatea.

Kontratua amaitzearen ondorioak 221. eta 307. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.

Hala ere, kontratu amaitutzat emanda ere, interes orokorreko arrazoiak badaude, esleipenduna derrigortuta egongo da kontratatutako baldintza berdinetan kontratuarekin jarraitzen, kontratu berria esleitu arte; esleipen berria ahalik eta arinen gauzatu beharko da.

21. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legeak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

22. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA



Kontratu honen esleipena publizitate bako prozedura negoziatu bidez egingo da, SPKLaren 166. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Publizitate bako prozedura negoziatu bidez egiteko arrazoia 168.a) artikulua 2. atalean xedatutakoan oinarritzen da.

Prozedura arrunta izango da, SPKLren 116 eta 117. artikuluei jarraiki.

Esleipena egiterakoan, oinarritzat hartuko diren irizpide eta formulak, laburpen taularen **13. atalean** zehaztutakoak izango dira.

Kontratu honen esleipenerako, eta 9/2017 Legearen 147. Artikulua araberak, lehentasuna ezartzen da, minusbaliadun langileen kopurua legeak agintzen duena baino altuagoa daukaten lizitzaileen alde, horrela frogatzen dutenean gaitasun teknikoa kreditatzerakoan, beti ere, hauek aurkezten duten proposamenak eskaintza hoberenaren terminoak berdintzen badituzte, esleipenaren oinarri diren irizpide objektiboen ikuspuntutik konparatuz.

Eskaintzak aurkezteko epearen azken egunean, bere plantilan daukaten minusbaliadun langile kopurua izango da kontuan lehentasun hau aplikatzean, eta III. eranskinaren aitortzen bitartez kreditatuko da. Lizitzaileak aipatutako aitortzen agiria edota eskatutako datu guztiak aurkezten ez baditu, ez zaio lehentasun hau aplikatuko, %2ko minusbaliadun langile kopurura heltzen EZ dela ulertuko delako efektu guztietarako, eta ezin izango du inolaz ere akats hori zuzendu.

Aldi baterako enpresa elkarteetan edota hainbat lizitzailek aldi batera parte hartzen badute, lehentasun hau aplikagarri izango da, langile minusbaliatuen kopuruak aipatutako indizea gaintzen duten plantilak daukatela ulertzen denean, kontratuan lizitzaile bakoitzaren parte hartzearen proportzioan.

Modu berean, lehentasuna ezartzen da Gizarteratzeko enpresen erregulazioa arautzen duen 44/2007 Legea betetzen dituzten gizarteratze enpresen alde, beti ere enpresak dituen lanpostuen %30ean gutxienez, baztertze egoeran dauden pertsonak kontratatze konpromisoa hartu badute (IV. eranskina). Baztertze egoeran daudela ulertuko da kasu hauetan daudenak:

- Gizarteratze Errenta Minimoa edo baliokideak eskuratzen dituztenak.
- Gizarteratze Errenta Minimoa edo baliokideak eskuratzeko eskubidea ez dutenak egotaldi edo errolatze epeak ez betetzeagatik, jasotze unitatea izateko baldintzak ez betetzeagatik, edota errenta horiek eskuratzeko gehienezko epeak gaintu dituztelako.
- Adin txikiko babespeneko instituzioetatiko 18 eta 30 urte bitarteko gazteak.
- Errehabilitazio edo gizarteratze prozesuan dauden droga edota alkohol arazodunak.
- Presondegietan preso daudenak, beti ere euren egoerak laneratzea ixten badie eta baita baldintzapeko askatasun egoeran daudenak edota preso ohiak ere.
- Ahalmen-urritasundun pertsonak.

Lehentasuna ezartzen da ere, eskaintzak aurkezteko epean, emakume eta gizonen aukera berdintasuna bultzatzen dituzten gizarte eta lan izaerako neurriak ezartzen dituzten lizitzaileen alde.



Gizarte edo asistentzia prestazioak ematea bada kontratuaren xedea, honakoa jasotzea gomendatzen da: Lehentasuna ezartzen da ere, pertsonalitate juridikoa daukaten eta irabazi asmorik ez daukaten entitateen alde, beti ere dagokion erregistro ofizialean erregistratutako entitatearen estatutuen edo eratze arauen arabera, entitatearen helburu edo aktibitatea kontratuaren xedearekin erlazio zuzena badauka.

Lehentasun irizpide hauek aplikatu eta gero berdinketa mantenduko balitz, 147.2. artikuluan aurreikusitako irizpideak aplikatuko dira.

23. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoen parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen tekniko eta ekonomiko frogatzen badituzte, eta kontratatze debekuren bat ez badute, SPKLren 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Kaudimena egiaztatze eta ebaluatze bideak SPKLren 87. eta 90. artikuluetan ezarritakoak izango dira, eta laburpen taularen **14.1 atalean** zehazten dira.

Kontratuaren prestazio zehatza burutzeko gaitasuna egiaztatze, laburpen taularen **14.2 atalean** zehaztutako kaudimena egiaztatu beharko da.

Pertsona fisiko edo juridikoen beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso duten enpresek ezin izango dute, zigorrak ezarritako aldian, deialdira aurkeztu.

Zerbitzuak ematen jardungo duen enpresak, hau da, esleipendunak, Udalari eta herritarrei dagokienean, aurrez aurreko harreman, txosten eta azalpen guztiak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz burutuko beharko ditu, herritarren eskubideen kalterik gabe. Udalak euskara baino ez du erabiliko bere harremanetan, idatzizko zein ahozkoetan.

24. DOKUMENTAZIOA AZTERTZEA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Dokumentazioa aztertzea. Kontratazio honen espediente, bai eta horrekin batera doan dokumentazio tekniko ere, kontratugilearen profilean kontsultatu ahal izango da. Hona hemen lotura: http://bermeo.eus/udalaren_kontratuak.html.



Dokumentazio edota kontratatazioaren ganean egiten diran kontsulta edo erantzunak lotesleak izango dira kontratazio organoarentzat eta kontratugilearen profilean argitaratuko dira SPKLaren 138.3 artikulua gatz bat.

Proposamenak aurkeztea: ondorengo moduan, lekuan, ordutegian eta epean aurkeztu beharko dira:

LEKUA: Kontratugilearen profilean, lotura honen bidez: <http://bermeo.eus/1470.html>

EPEA Egutegiko 15 egun, gonbitea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Prozeduran parte hartzeko eskaria, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengoko bost egunetan egin beharko da.

Lehiatzaileek artxibo bakarria aurkeztu beharko dute.

Artxiboan laburpen taularen **15. Atalean** zehaztutako izena ipiniko da.

Hona hemen artxibo honetan aurkeztu beharreko agiriak:

- a) SPKLen 140.1.a) artikuluan zehaztutako erantzukizunpeko adierazpena.

Europar Batasunak onartutako Europako Kontratazio Agiria aurkeztu beharko da (DEUC – V. eranskina).

Agiri hori, helbide elektronikoa honetan eskuratu daiteke:

<https://visor.registrodelicitadores.gob.es/>

Beste enpresen kaudimena edo baliabideak erabiliko badira, beste enpresa guztien erantzukizunpeko adierazpena, aitatutako agiriaren arabera (DEUC).

EBB bat eratzeko asmoa eduki ezker, enpresa guztien erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, agiri berberaren arabera (DEUC).

b) Komunikazioak elektronikoki bideratu ahal izateko, helbide elektronikoa jasotzen duen adierazpena (VI. eranskina).

c) EBB bat eratzeko asmoa eduki ezker, aurreko paragrafoan zehaztutakoaz gain, EBBa eratzeko konpromisoa.

d) *Balio-judizio bidezko irizpideak baloratzeko beharrezkoak diren agiriak (zehaztu)*

e) **Proposamen ekonomikoa**, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren VII. **Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.



Artxiboetan txertatzen diren agiri guztiak digitalki sinatuta joan beharko dira.

Ez dira onartuko proposamen hauek:

- 1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
- 2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- 3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
- 4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
- 5) Pleguaren VII. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
- 6) Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.

Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko erizpideak erabiliz, Kontratazio arduradunak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.

Parte hartzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Hori betetzen ez duten parte hartzaileak kanporatu egingo dira.

Udalak edozein momentutan eskatu ahal izango du erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoak betetzen direla agiri bidez justifikatzeko.

Esleipendunak, horretarako errekerimendua jaso eta 5 laneguneko epean aurkeztu beharko ditu eskatutako agiriak.

Proposamenak aurkeztearen ondorioak: Proposamenak aurkezteak, parte hartzaileak baldintza agiriak onartzen dituela eta administrazioarekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituela suposatuko du.

Prozedurean parte hartzeko, hiru enpresa gonbidatuko dira gutxienez.

Hala ere, Kontratugilearen Profilean iragarkia argitaratuko denez, horretarako zehaztutako epean parte hartzeko eskaria egiten duten guztiak bialduko zaie gonbitea.

Gonbiteak, Kontratugilearen Profiletik bideratuko dira.

25. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, proposamenen kartazalak irekiko dira, aurkeztutako agiriak aztertuko dira eta bertan antzeman ditzaketen akats edo gabeziak zuzentzeko epea emateko aukera izango da. Hala, aipatu agiriak onartzen direnean, hala badagokio negoziaketa hasiko da.



Administrazio-baldintza zehatzen orri hauetan esleipenerako erizpide bezala ezarritako edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo logistiko negoziatu daiteke parte-hartzaileekin, kontratuaren gaiari lotuta badago.

Kasu honetan, parte hartzaile bakoitzak aurkeztutako proposamena ikusita, balorazio irizpide bakoitzean izandako eskaintza hoberenaren informazio taula bidaliko zaie parte hartzaile guztiei, beste lehiatzaileen nortasuna babespean mantenduta.

Informazio bidalketa emailez egingo da eta, informazio hori jaso eta hiru eguneko epean, eskaintza hobetzeko aukera emango zaie parte hartzaileei.

Hobetzeak aurkezteko fasean proposamen berririk aurkezten ez duenari, hasikeran aurkeztutako proposamena baloratuko zaio.

Negoiazinoaren arduraren laburpen taularen **3. Atalean** zehaztutako teknikariarena izango da, departamentu juridikoaren laguntzarekin egingo duena.

Behin negoziazioa amaituta, negoziazioaren arduradunak eskaintzak modu beharokorrean sailkatuko ditu eta espedientea kontratazio-organoari bidaliko zaio kontratuaren esleipena egiteko. Bertan zehaztu eta finkatuko dira kontratuaren behin betiko xedapenak


Baina errekerimendua bideratu baino arinago, eskaintzaren bat anormali baxua den edo ez egiaztatu beharko da. Horretarako laburpen taularen **16. ataleko** irizpideak hartuko dira kontutan.

Puntu gehien lortu dituen eskaintza anormalki baxutzat emango balitz, SPKLren 149. artikuluan jasotakoak betetzen direlako, 1. eta 2. eginbeharrak egin eta gero, 149. Artikuluan jasotako prozedura jarraituko da, kontutan edukita lehiatzaileak 5 laneguneko gehienezko epea edukiko duela, komunikazioa jasotzen duenetik, eskaintza justifikatzeko.

Epe hori igarota, kontratuaren arduradunak aztertu eta proposamena onartu edo kanporatzeko proposamen arrazoitua egingo du.

Esleipena egin aurretik, kontratuaren arduradunak, puntu gehien lortu dituen parte hartzaileari errekerimendua egingo dio, 10 laneguneko epean agiri hauek aurkeztu dituzan:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero:
 - Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
 - Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen aholorde eskritura edo egiaztagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
 - Sinatzailearen NAN agiriaren fotokopia.
- Espainiarrak ez diren enpresek, baldin eta Europar Erkidegoko estatu kideetakoak



edo Europako Eremu Ekonomikoaren Ituna izenpetu duten estatuetaoak badira, jarduteko gaitasuna egiaztatu behar dute SPKLko 67 eta 68 artikuluetan xedatzen denaren arabera.

Berebat, atzerriko enpresek bulego bat irekita izan behar dute Espainian, eragiketarako egiteko ahalduak edo ordezkariak izendatu, eta Merkataritza Erregistroan inskribaturik egon.

Atzerriko enpresek adierazpena aurkeztu behar dute Espainiako edozein ordenako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzeari buruz. Hori, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortzen diren gorabehera guztiei begira. Adierazpenean, halaber, uko egingo diote lizitatzailari egoki lekiokoen jurisdikzio-foruari.

- Lizitazioan hainbat enpresaburuk hartuko badute parte aldi baterako batasun bat eratuz, bakoitzak bere nortasuna eta gaitasuna egiaztatu beharko ditu, eta izenpetzen duten enpresaburuen izenak, inguruabarrak eta bakoitzaren parte-hartzea zein diren adierazi. Berebat, batasunaren ordezkari edo ahaldu bakarria izendatu behar dute, kontratua hasi eta bukatzen den arte sortzen diren eskubideak eta betebeharrak betetzeko ahalmenarekin. Hala ere, enpresek ahalorde mankomunatuak ere eman ditzakete, kopuru handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

- c) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VIII. Eranskina).
- d) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (IX. Eranskina).
- e) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.
- f) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldiko bada, edo EJZren azken ordainagiria edo salbuetsita egotearen egiaztagiria, gainerako kasuetan. Beti ere zerga horren matrikulan bajarik eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko da.
- g) Behin betiko bermea aurkeztu.
- h) Beste enpresen gaitasuna erabiltzeko asmoa agertu badu, enpresa horien konpromisoa aurkeztu, baliabide nahikoak izango dituela egiaztatzeko.
- i) Kontratua exekutatzeko konprometitutako baliabideak benetan dauzkala egiaztatzeko agiriak aurkeztu.
- j) Enpresa Jardueren Koordinaziorako betekizunak bete ditzan. (I. eranskina).
- k) Datuen babeserako konpromisoak zehazten dituen agiria sinatu dadin. (II. eranskina).



*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroan izena eman badago, a), b), c), d), e) eta f) ataletan aipatutako dokumentazioaren ordezkari haur aurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zinpeko aitortpena (X. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopia aurkeztekotan, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

Horrela egingo ez balu, kontratuari uko egin diola ulertuko da eta zerrendako hurrengoari errekerituko zaio aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Andoren, kontratuaren arduradunak, bidalitako errekerimendua era egokian bete dala egiaztatuta, esleipen proposamena Kontratazio Organora bideratuko du, esleipena egin dadin.

26. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Organora proposamena bideratu eta hurrengoko egutegiko 5 eguneko epean egin beharko da esleipena.

Esleipen irizpide bakarra prezioa balitz, esleipena, proposamenak zabaldu eta egutegiko 15 eguneko epean egingo da gehienez. Bestelako kasuetan, gehienezko epea hile bikoia izango da.

Horrela egingo ez balitz, lehiatzaileek beraien eskaintzak erretiratzeko eskubidea izango dute eta horrek ez diete inolako eraginik sortaraziko.

Behin esleipena eginda, kontratua agiri bidez formalizatuko da, esleipendunari esleipena jakinarazi eta hurrengoko 15 laneguneko epean.

Esleipendunak epe horretan kontratua sinatuko ez balu, lizitazio prezioaren (BEZa kanpo) % 3ko zigorra ezarriko zaio, behin betiko bermearen kontura joango dena lehendabizi holakorik ezarrita egon ezker.

Kasu honetan, hurrengo geratu denari esleitu zaio kontratua, aurreko ataletan zehaztutako errekerimendua egin eta bete ondoren.

Gainera EBBa eratzeko asmoa agertu izan bada, EBBa eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da.

Aurkeztuko ez balitz, kontratuari uko egin diola ulertuko da eta bertan behera utzi ahal izango da, SPKLaren arabera, eta zerrendan hurrengo geratu denaren aldeko esleipena egingo da.



Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da jakinarazpena. Konkretuki, egin ahal izango da korreo elektronikoz, lehiatzaileek edo hautagaiek euren proposamenetan zehaztutako helbidean.

Kontratazio-organoak egingo dauan esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere sartu esleipen irizpideak aldatzea eragingo duten klausularik. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratua formalizatu arte ezingo da berorri gauzaten hasi.

Behin kontratua formalizatuta, formalizazioaren iragarkia eta kontratua bera kontratugilearen profilean argitaratutako da, gehieneko egutegiko 15 eguneko epean. Formalizazio iragarkia, SPKLren III. eranskinean zehaztutako gutxiengo informazioa jaso beharko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua dagokion epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak ezarri duen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango du, behin betiko bermearen gainean.

27. KONTRATUARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, SPKLren 152. artikuluaarekin bat.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, kontratua formalizatu aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoientatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiek bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA



Sinadurea eta data



28. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

Era berean, euskerazko eta gaztelaniazko testuen artean ezberdintasunik egongo balitz, euskerazko testuak diotenak izango du lehentasuna.


29. ERREKURTSOAK

Baldintza agirien eta kontratazio espedientearen onartutako erabakien aurka, laburpen taularen **17. atalean** zehaztutako errekurtsuak aurkeztu daitezke.

30. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Bermeon, data:

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E40004319100G6Q7B4J9U4Y4</p>	<p>Sinadurea eta data</p> <p>MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020 10:28:39</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020KON_NE_G0003</p> <p>Fecha: 27/03/2020</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
---	--	--	---



I. ERANSKINA
ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA

LAPLko 24. artikulua garatzen duen, urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuko 10.2. artikuluan adierazten den bezala, lan arriskuen prebentzioaren arloko enpresa jardueren koordinazioaren barnean, enpresaburu nagusiaren zaintzako betebeharren barruan, enpresa kontratistei hurrengo agiriak aurkezteko eta kreditatzeko eskatzen zaizkie.

Horregatik ondorengo agiria aurkeztu eta kreditatu beharko da:

- ✓ Zerbitzua emango duen enpresa kontratistaren **arduradunaren izendapena**.

Eta kasuan kasu ondorengo agiria aurkeztu eta kreditatu beharko dira:

- ✓ Kontratututako zerbitzuetan garatu beharreko jardueretako **lanpostu ezberdinen lan arriskuen ebaluazioa** eta **prebentzio neurrien** agirien kopia.
- ✓ Bermeoko Udaleko lantokian zerbitzua eskainiko duten langileen **zerrenda eguneratuta** eta langile horiei emandako **arriskuen informazioaren** erregistroaren kopia.
- ✓ Langile horiek prebentzio arloan hartu duten **formazioaren** erregistroaren kopia.
- ✓ Langile horien **lan gaitasunaren** mediku ziurtagirien kopia.
- ✓ Zerbitzua emango duten langileei **norberaren babeserako ekipoen ematearen** erregistroen kopia (langileei eman bazaio).
- ✓ Enpresa kontratistaren **prebentzio baliabidearen** izendapena (izendatua balego).
- ✓ **Erantzukizun zibileko** aseguruaren polizaren kopia eguneratua (baldintza pleguetan aurkeztu ez bada).

OHARRA: Goian eskatzen diren agiriak kreditatzerakoan, bakarrik aurkeztu beharko dira Bermeoko Udaleko gune eta lantokietan zerbitzua emango duen enpresa kontratistaren langileen agiriak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004319100G6Q7B4J9U4Y4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020
10:28:39

EXPEDIENTE ::

2020KON_NE_G0003

Fecha: 27/03/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia



II. ERANSKINA
DATU PERTSONALAK ETA INFORMAZINO KONFIDENTZIALA BABESTEARI BURUZKO
KLAUSULA

..... ENPRESEAK AITORTZEN DAU:

Kontratu honen xede diran zerbitzuak emoteko kontratuzko hartu-emonari jarraiki, BERMEOKO UDALarentzat Obrak/ zerbitzua/ lanak egingo dauzala.

Horreek obrak/zerbitzuak/lana egin/emoteko, BERMEOKO UDALAK,enpreseari datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategietara sartzeko baimena emon behar badeutsoz, enpreseak datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategiak BERMEOKO UDALAREN kontura erabiliko dauzala.

Sarrera hori emoteagaitik, halan behar izatekotan, ezin leitekela ezelan be ulertu lagapen, emote edota Datu Pertsonalen zein Fitxategien transferentziarik dagoanik.

..... enpreseak, udalaren datuez kanpo, kontratuaren xede diran egitekoetarako, jasoten dauzan bestelako datu pertsonalak zein konfidentzialak, Bermeoko Udalaren izenean egingo dauzala, kontratu honen helburua dan proiekturako soilik erabili ahal izango dauzala, udalaren titularidadekoak izango dirala, eta datuen Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako 3/2018 Lege Organikoaren eta horren garapenerako araudian ezarritako eginbideak beteko dirala.

Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako 3/2018 Lege Organikoan, jagoken pertsonen eskubideak bermaturik gelditzeko eta datu zein fitxategi horreetara sartzean jarraitu beharreko legediari eutsiz agintzen dan "hirugarrenek egindako tratamenduak idatziz egindako kontratuan arautuko dira" adierazpenean oinarrituta eta datu pertsonalen jasoketan araudiak exijitzen dauzan zehaztasun, informazio, ardura eta arretan oinarrituta eta, era berean konfidentziasunak eskatzen dauzan bermeak kontutan eukita, enpreseak onartzen dauzala hurrengo

AITORPENAK

LEHENENGOA .- Muga

.....enpreseak, BERMEOKO UDALAREN ardurapekoak diran datu pertsonaletara eta fitxategietara helduko da lotzen dauen kontratuzko hartu-emonaren izakera juridikoa eta funtzino ekonomikoak halan eskatzen badau, eta, betibe, kontratautako obra/zerbitzua/lanak hobetzeko beharrezkoa izan ezker.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEO UDALAK itxitako datu pertsonalak zein konfidentzialak, bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Horrezaz ganera, enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbetako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEO UDALAGAZ daukan kontratu hau beteteko udalaren izenean eta kontratu honen xede dan helbururako jasotako Datu Pertsonalak eta konfidentzialak bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Jasotako datuok udalaren izenean egiten dauzala informau beharko dau, eta datu-bilketea honako araudiek agindutakoaren arabera egingo da: Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua,



zezeilaren 25eko 2/2004 Legea eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretua.

Horrezaz ganera,enpresek ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbazinorako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

BIGARRENA .- *Araudia*

.....enpresek Datu Pertsonaletara eta Fitxategietara egindako sarbidea, Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako 3/2018 Lege Organikoaren xedapen zehatzak, apirilaren 27ko Europar Legebiltzar eta Kontseiluko (EB) 679/2016 Erregelamenduak -pertsone fisikoen babesekoa, datu pertsonalen tratamenduari dagokienean, eta datu hauen zirkulazio askearen gainekoa- eta garapen araudi ezargarriak arautuko dabe.

.....enpresek Datu Pertsonalen arautegiak, tratamenduaren arduradunari ezarten deusaz eginbeharrak eta betekizunak eta datu pertsonalen jasoketan kontuan euki beharrekoak bere gain hartzen dauz. Halanda ze, Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako Legeak eta Europar Legebiltzar eta Kontseiluko (EB) 679/2016 Erregelamenduak garatzen dabezan berme aginduekatz bat eginez, datuen izakerearen arabera eta ezarten diran tratamenduen arabera, behar diran neurri teknikoak, antolaketakoak eta behar diran neurriak diseinetako, ezarteko eta gordeteko konpromisoa eta betebeharra daukaz.

Eta datu pertsonalen segurtasunean bortxaketarik egongo balitz, Europar Legebiltzar eta Kontseiluko (EB) 679/2016 Erregelamenduak ezartzen dauzan neurriak hartzera behartuta dago enpresea. Horrela egingo ez baleu, ez betetzen horren ondorioz sortu leikezan ondorio guztiak berari soilik eragotziko jakoz.

HIRUGARRENA .- *Ardurea*

Legeak BERMEOKO UDALA "arduradun" izentetan dau jagokon administrazioaren zein auzitegiaren aurrean.enpresek, "eragileak", BERMEOKO UDALAK emondako aginduak beteta, zuzenean edo zeharka Datu Pertsonalen mendekotasunak sortzen dauzan erantzukizun danak bere gain hartzen dauz.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak edota eskumena daukan beste erakunderen batek, erantzukizunaren egozketa edo gatz-kalteakaitiko ordainen erreklamazioa egingo baleutso Bermeoko Udalari, BERMEOKO UDALAKenpresek aurka jo leike Jurisdikzio Zibil Arruntaren aurrean, jagokozan itzulera eta konpentsazio ekintzak bideratzeko, baita beste edozein egiazko, ahalezko, moralezko zein etorkizuneko gatz-kalteak konpentsetako be eta, bardin, informazio konfidentzialak era desegokian erabiltzen badira.

LAUGARRENA .- *Konfidentziasuna*

.....enpresek, sarbidea daukan datu pertsonalen zein eskuratutako informazio konfidentzialen isilpeko izakerea gordeteko eta inori ez zabaltzeko konpromisoa hartzen dau, baita kontratautako obra/zerbitzu/lanetatik kanpo ez erabilteko konpromisoa be.enpresek bere ardurapeko langileek ez dabezala horreek datu pertsonalak zabalduko bermatzen dau, baita modu desegokian ez dabezala erabiliko be.

Konfidentziasun eginbehar horrek, BERMEOKO UDALAREN ardurapean dagozan datu pertsonaletara edo fitxategietaraenpresek egindako sarbidea dala-eta, Bermeoko Udalagaz egindako kontratuaren helburua lortzeko honen izenean jasotako bestelako datu pertsonalak dirala-eta, zein eskuratutako informazio edota datu konfidentzialak dirala-eta, sortutako zerbitzu hartu-emonan amaitu ostean be iraungo dau egitez edo eskubidez, itxura, era eta denpora albo batera itxita.



BOSGARRENA.- Ebazpena

Honeek akordioak muga bako iraupena dauka, baina obra/zerbitzu kontratuen hartu-emonaren iraupenagaz lotuta dago.enpreseak, obra/zerbitzua/lanak amaitu eta gero, zerbitzua beteteko erabili dauden euskarria deuseztatu egingo dau, baita kopiak eta bestelako euskarriak be (informatikoak izan zein ez), beti be, Udalak itzultzeko eskatzen ez badeutso.

SEIGARRENA.- Ezarri leitekezan jurisdikzinoa eta legeria

Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa, , apirilaren 27ko Europar Legebiltzar eta Kontseiluko (EB) 679/2016 Erregelamenduak xedatutakoa -pertsona fisikoen babesekoa, datu pertsonalen tratamenduari dagokienean, eta datu hauen zirkulazio askearen gainekoa- eta lege hori garatzen dauden araudia be ezarri ahal izango dira. Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren ebazpenak be hartuko dira oinarritzat.

Klausula honen interpretazioak edo ezarpenak sortu leikezan zalantzak, desadostasunak zein bestelako arazoak eta eztabaidak, Gernika-Lumoko Auzitegiaren mende ipiniko dira. Bi aldeek uko egiten deutsee Antolamendu Juridikoaren arabera eskumenak daukiezan beste epaitegiei.

Bermeon, data:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004319100G6Q7B4J9U4Y4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020
10:28:39

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0003
Data: 27/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



**III. ERANSKINA:
MINUSBALIADUN LANGILERIARI BURUZKO AITORPENA**

.....J^a/A^a.....NAN zenbakiduna,
.....zenbakiduneko IFK daukanenpresaren ordeaz eta izenean,

Erantzunkizunpean, Adierazten dau:

1.- Agiri honek aurkezteko dataz, goian aipatutako enpresak ondorengo langile kopuru eta motak daukazala:

- MINUSBALIADUN langileen kopurua, guztira:.....

- Enpresaren plantilakoak diranak eta besteren kontura lan egiten daberen langileen kopurua, autonomoak eta bere kontura lan egiten daberen langileak bastertuta, guztira:
.....

- Enpresaren plantilako langile guztien artean, MINUSBALIADUN langileek suposatzen daberen portzentaia, autonomoak edota bere kontura lan egiten daberen langileak bastertuta, guztira:

Aitorpen hau kreditatzeko asmoagaz, administrazio honek Enpresa lizitatzailari eskatzen deitsozan agiri guztiak entregatzeko konpromezua hartzen dau.

Bermeon, data:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40004319100G6Q7B4J9U4Y4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020
10:28:39

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0003
Data: 27/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



IV. ERANSKINA**GIZARATERATZEKO ENPRESEA IZANDA, LANPOSTUEN %30EAN GUTXIENEZ BAZTERTZE EGOERAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO KONPROMISOA.**

.....jaunak/andreak, helbidea
.....duenak eta NAN
zenbakiaduenak, bere izenean edo
.....(ordezkaritzako ahalmenak
adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,
.....
.....enpresaren, egoitza
sozialaeta IFK
zenbakiadituenaren izenean,

Erantzunkizunpean aitortzen du:

Ordezkatzen duen enpresak Gizarteratzeko enpresen erregulazioa arautzen duen 44/2007 betetzen duela.

Beraz, baldintza hori beteta, adierazten du:

Baldintza agiritako 18. atalean aipatutako esleipen lehentasuna aplikatze aldera, enpresak dauzkan lanpostuen %30ean gutxienez, baztertze egoeran dauden pertsonak kontratatze konpromisoa hartzen dela.

Bermeon, data:

**Sinadurea eta data**

V. ERANSKINA
DEUC AGIRIA

Kasuan kasu betetzeko



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004319100G6Q7B4J9U4Y4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020
10:28:39

EXPEDIENTE ::

2020KON_NE_G0003

Fecha: 27/03/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia



VI. ERANSKINA
KOMUNIKAZINO ELEKTRONIKOETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOAREN
ADIERAZPENA

.....jaunak/andreak, helbidea
..... duenak eta NAN
zenbakiaduenak, bere izenean edo
.....(ordezkaritzako ahalmenak
adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,
..... enpresaren,
egoitza soziala.....eta IFK
zenbakia..... dituenaren izenean,

ADIERAZTEN DU:

Bermeoko Udalari baimena ematen didala kontratu honi lotutako eskakizun, berri emate eta jakinarazpen mota guztiak posta elektronikoz bidez bidaltzeko behean ageri den helbidera, legeak ezarritako ondore juridikoekin.

Helbide elektronikoa:

Bermeon, data:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoz egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40004319100G6Q7B4J9U4Y4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020
10:28:39

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0003
Data: 27/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



VII. ERANSKINA

Proposamen ekonomikoaren eredia

..... Jaun/Andreak,
 Helbidearekin eta zerbakiduneko
 NANarekin, nire izenean edo Helbidea eta
 IFZ daukan izeneko
 enpresaren orde, Merkataritza Erregistroan datu hauekin inskribatutakoa:
 Tokia:..... Eguna:
 Liburua: Tomoa: Orria:
 datako eskrituraren arabera, (..... protokolo zenbakia) hiriko
 notario jaunaren/andrearen aurrean formalizatutakoa,
 ditudan ahalmenekin bat,

AITORTZEN DUT:

- I.-
 xedea daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.
 II.- Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.
 III.- Ordezkatzen dudana enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.
 IV.-Aipatutako kontratuaren betearazpena honako prezio hauetan betetzea proposatzen dudala:

2.Lotea		3.Lotea		4.Lotea		5.Lotea	
Aholkularitza	Defentsa	Aholkularitza	Defentsa	Aholkularitza	Defentsa	Aholkularitza	Defentsa
..... € ordua (BEZa kanpo). BEZari dagokion kopurua Denetara BEZa barne €	% ko beherapena * € ordua (BEZa kanpo). BEZari dagokion kopurua Denetara BEZa barne €	% ko beherapena * € ordua (BEZa kanpo). BEZari dagokion kopurua Denetara BEZa barne €	% ko beherapena * € ordua (BEZa kanpo). BEZari dagokion kopurua Denetara BEZa barne €	% ko beherapena *

* Legelarien Euskal Kontseiluak zehaztutako ordainsarien arauetan zehaztutako kopuruei.

- V.- Esleipen irizpideen arabera, kontratuaren exekuzioan baldintza hauek betetzea poproposatzen dudala:

1.- Prestasun osoa, bai teknologikoa eta baita presentziala ere, egutegi eta ordutegia edozein dela ere, proposamen ekonomikoan aurkeztutako ordu/prezio berdinean:



- Bai.
 Ez.

2.- Edozein bazarretan parte hartu eta laguntzea, batzarra edonon eta edonoiz dela ere, baldintzan zehaztutako gutxiengoa gaindituta, proposamen ekonomikoan aurkeztutako ordu/prezio berdinean:

- Bai.
 Ez.

3.- Kontsulta errazak momentuan erantzutea eta konplexuak, gehienez, 5 eguneko epean, kontsultaren eguna eta ordua edozien dela ere, ezelako kosturik gabe errazak direnean eta proposamen ekonomikoan aurkeztutako ordu/prezio berdinean konplexuak direnean:

- Bai.
 Ez.

4.- Abuztuan presentzia telematikoa bermatzea:

- Proposamen ekonomikoan aurkeztutako ordu/prezio berdinean.
 Ordu/prezio honetan: € BEZ barik (BEZa: € Danatara: €).

5.- Agiri ezberdinak erredaktatzea dohain:

Udalak eskatutako agiri ezberdinak erredaktatzeko orri dohain erredaktatzea.

6.- Hurbiltasuna:

- Bulegoa 50 kilometro baino gutxiagora dago. Hona hemen helbidea:
.....
 Bulegoa 50 kilometro baino gutxiagora ipinteko konpromisoa.

VI.- Esleipen irizpideen arabera, zerbitzu hauek eskeintzen ditudala:

- Plangintza egitea.
 Legediaren gaineko ikastaroak edo legediaren laburpen-ondorioak ematea.



VII.- Esleipen irizpideen arabera, hobekuntza hauek eskeintzen ditudala:

- Zigor arloan, psikologo, mediku edo kriminalisten laguntza(*).
- Lan arloan, giza baliabideen teknikari edo psikologoaren laguntza(*).
- Merkataritza arloan, finantza eta zerga arloetako adituen laguntza(*).
- Zuzenbide zibilaren arloan, arkitekto edota erantzukizun zibileko gaietan edo aseguru gaietan adituen laguntza(*).

(*)Adituen konpromiso gutuna erantsi beharko da.

Bermeon, data.

Sinatuta:

NAN:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004319100G6Q7B4J9U4Y4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020
10:28:39

EXPEDIENTE ::

2020KON_NE_G0003

Fecha: 27/03/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia



VIII. ERANSKINA
KAUDIMEN TEKNIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko
NANarekin, helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordez,
..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen teknikoari
begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

1. Azken hiru urtetan enpresa honek egindako lanak ondokoak izan direla:

- xxxx. Urtea
- xxxx. Urtea
- xxxx. Urtea

2. Kontratua betetzeko gure esku dauden unitate teknikoak ondokoak direla:

3. Ingurugiroko kudeaketa neurriak ondokoak direla:

4. Enpresaren baliabide pertsonalak ondokoak direla:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen teknikoa frogatuta gera dadin,
adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, data:

Sinatuta:

NAN:



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.

Kodea:
07E40004319100G6Q7B4J9U4Y4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020
10:28:39

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0003
Data: 27/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidada:
Erregistro nagusia



**IX. ERANSKINA
KAUDIMEN EKONOMIKOA**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakidune
ko NANarekin , helbidea etaIFZ
daukanizeneko enpresaren orde, xede
daukan kontraturako eskatzen den kaudimen ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

Enpresaren negozioen kopurua azken hiru urtetan ondokoa izan dala:

XXXX. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

XXXX. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

XXXX. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen ekonomikoa frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, data:

Sinatuta:
NAN:



X. ERANSKINA

**EUSKO JAURLARITZAKO KONTRATISTEN ERREGISTROKO EDOTA BIZKAIKO FORU
ALDUNDIAREN LIZITATZAILEEN ERREGISTROKO DATUEN BALIAGARRITASUNAREN
ZINPEKO AITORPENAREN EREDUA**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakidun
eko NANarekin, helbidea etaIFZ
daukan izeneko enpresaren orde,

KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak edota Bizkaiko Foru
Aldundiko Lizitatzailen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren datuen
baliagarritasuna eta indarraldia, batez ere, Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017
Legearen 71. artikuluari dagozkionak.

Bermeon, data:

Sinatuta:
NAN:



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.
Kodea:
07E40004319100G6Q7B4J9U4Y4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020
10:28:39

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0003
Data: 27/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

